

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**377/2016 Foru Agindua, irailaren 20koa, Israel Augusto Huarte izendatzen duena aldi batez Navaridasko Udaleko idazkari lanposturako, 2016ko irailaren 25 eta 26rako, Eusko Legebiltzarrrako 2016ko irailaren 25eko hauteskundeak direla-eta**

Navaridasko Udalak jakinarazi dio atal honi gaur egun idazkari-kontuhartzailerik gabe dagoela, eta, beraz, norbait izendatu beharra dagoela aldi baterako, lanpostu hori 2016ko irailaren 25ean eta 26an betetzeko, Eusko Legebiltzarrrako egingo diren hauteskundeak direla-eta, ziurtatzearen udaleko langileek euskal hauteskunde horien inguruan egin behar duten lana.

Hori dela eta, proposatzen du egun horietarako Israel Augusto Huarteren aldi baterako izendapena egitea, egun administrari laguntzaile lanpostua betetzen baitu udal horretan.

Bat etorritz 1732/1994 Errege Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoarekin (uztailaren 29koa, Gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoa, beste errege dekretu honek emandako idazkeraren arabera: 834/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa).

Kontuan hartuz Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legearen 25. artikuluan xedatutakoa — 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, zeinak aldatu egiten baitu 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituena, 92.bis artikulua berria sartuz; artikulua berri horretan, toki korporazioetan langileak halaberrez aldi baterako izendatu behar direnerako eskumen esparrua zehazten da.

1732/1994 Errege Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarrian agindutakoa eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubideari buruzko Foru Arauak 40. artikuluan jasotako eskumenak betez (52/1992 Foru Araua), haien indarrez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. Aldi baterako izendatzea Israel Augusto Huarte jauna, Navaridasko idazkari-kontuhartzailerik lanpostuari dagozkion eginkizunak bete ditzan 2016ko irailaren 25ean eta 26an, Eusko Legebiltzarrrako 2016ko irailaren 25eko hauteskundeak direla-eta.

Bigarrena. Izendapenak aurreko idatz zatian adierazi den aldirako soilik izango du indarra.

Hirugarrena. Jakinaraztea foru agindu hau interesatuei, Navaridasko Udalarari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioarekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 20a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatua*  
**MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
**IÑAKI GUILLERNA SAENZ**